

Oroimenari buruzko ikerketa batzuek erakusten dutena

Mike Huggins

Giza oroimenari egindako ikerketek bistaratu dute ikasteko gaitasunean eragina dutela: suspertasun-mailak, ikasgaioan informazioa ezarritako dagoen lekuak, ikasgaia zenbat alditan eta nolako tarteekin lantzen den eta ikasgaiko atalen elkarren antzak. Puntu hauek banan-banan ukituko dira artikuluan, hizkuntzen irakaskuntzan dituzten ondorioak aztertuz.

Sarrera


Oroimenaren ikerketako lehenengo ideiak Denbora Osoaren Hipotesiaren eraginpean zeuden. Alegia, honenbesteko bat ikasteko hainbeste denbora behar zela; hori ez zegoela ikasteko edo irakasteko metodoen baitan. Gauzak horrela izatea etsipen-bide litzateke irakasleentzat. Baina, nahiz eta hipotesi horrek, agi denean, egi zati bat baduen, 1960az geroztikako ikerketek aurkitu dituzte faktore batzuk ikaskuntzaren artzan, antza denez, eragina dutenak.

Faktore horiexek izango ditugu hizketagai hurrengo lerroetan; hizkuntzen irakaskuntzarekin duten lotura gogoetatu eta, bide batez, ikasgelako metodologia aldatzeko zenbait aholku emango ditugu.

Faktoreak eta beroien eragina Suspertasuna



Aski argi dago susper egotea dela ikaskuntzako faktoreetan garrantzitsuenetako bat. Ez da, ordea, erraza zer den adieraztea. Susperraldirik altuenetan orduantxe egoten da gorputzaren tenperatura beroen, bihotzaren taupadak azkartu egiten dira, izerdia ere areagotu eta gorputzaren mugimenduak handitu. Gorabehera horiek, hala ere, ez dute zertan denak batera gertaturik. Hots, suspertasun-mota desberdinak daudela, baina, artikulua honen helburuetarako, susperraldia erretasun-egoera handitzea dela definituko dut, beharbada adrenalinarekin nibela jasoagoa delako. Baina argi dago gizakiaren errendimendua eta suspertasuna beti elkarrekin lotuta daudela.

.1:



Suspertasuna apala denean (.1), edozer egiteko gaitasuna ere apala izan ohi da. Hori horrela gertatzen da ikasgaia edozein delarik. Suspertasuna handiagoa denean, errendimendua ere handiagoa egiten da. Baina, suspertasuna hori gehiago igotzen baldin bada, errendimendua murriztu egiten da jeneralean. Eredua are konplikatuagoa da kontuan hartuz suspertasun-mailarik hoberena apalagoa dela eginkizun konplexuetarako zingletarako baino.

.2:



Testu zail bat irakurtzea (.2) edo testu-zati luze bat entzutea eginkizun konplexu jotzen dira. Errepikazko atazak, hala nola, hitz-zerrendak ikastea edo ahoskera lantzea, erraz samarrak.


Bi eginkizun ditu, beraz, irakasleak ikasgelan. Alde batetik, bere suspertasun-mailak izango du eragina irakaskuntzaren ondorioetan. Bigarrenik, irakasleak bere ikasleen suspertasun-maila kontrolatu beharko du. Jasoe-gia denean, jaisten saiatu beharko du. Isilik egoteko eskatzea da bide bat. Zenbaitetan ikasle batzuek beren burua mehatxupean ikusten dute ikasgelan zerbait egiteko eskatzen zaienean, eta horrek suspertasun-maila hoberena baino gorago eramaten du. Horrelako ikasleak normalean hobeto aritzen dira talde txikitan edo binaka, ez baitute beren burua arretaren ardatz eginda ikusten. Gehiagotan gertatuko da, ordea, ikasgelako susper-maila behar baino baxuagoa izatea. Nik hori konpontzen dut ikasgelako zarata handituz eta lanari martxa biziagoa ezarriz. Gelan batera eta bestera ibiltzen naiz, besoak mugituz, galderak eginez... eta giro ardailatsua sortzen dut.

Bada beste alderdi bat ere aintzat hartu beharrekoa suspertasun eta ikas-kuntzaren arteko lotura-kontuan. Suspertasuna apala denean, askotan hobeto gogoratzen dituzte ikasleek gauzak epe motzean (ikasaioa bukatu denean edo biharamunean). Epe luzera, ordea, aski ahula izan ohi da oroitzapena.

Suspertasuna jasoa denean, aitzitik, epe motzera ez dira gauzak ondo gogoratzen, baina bai handik hilabete batzuetara aztertzen direnean.

Epe luzeko oroimena hobe izaten da hizkuntz kontuetan suspertasuna jasoa denean (.3).

.3:




3. irudia - Esanahirik gabeko silaba-pareak gogoa hartzearen diferentziala suspertasun-mailaren arabera. Susper-raldi jasoko silabek erantzun galbaniko altua (GSR) eragiten zuten larru-azalean hasierako aurkezpenaldian.

GSR (Galvanic Skin Response). Suspertasuna handitzearekin larru-azalean gertatzen den elektrizitate eroankertasun handiagoa da. Handiagotze horren arrazoia da transpirazioa apur bat handitu egiten dela. Horixe da besteak beste gezur-aurkigailuek baliatzen duten gorpuzteko erantzuna. Jatorria: L. J. Kleinsmith eta S. Kaplan, Interaction of arousal and recall interval in nonsense syllable paired-associate learning, Journal of Experimental Psychology 67 (1964).


Hasierak eta
bukaerak
.4:

Azterketa askok bistaratu du ikasazioaren hasieran jasotako gauzak eta bukaerakoak hobeto hartzen direla gogoan (.4).



Dirudienez, honetan ez dago salbuespenik. Ikasialoaren erdi aldean jasotakoa ahazteko arrisku handiagoa dago. Baina horretan ere zerbait egin dezake irakasleak: ikasialoak argi eta garbi bereizteko moduko ataletan banatu, ikasgai txikitik alegia (.5).

.5:




Nik horixe egiten dut, ikasgaiak hiru, lau edo gehiago “atal” ondo banatuta zatitu. Ataletik atalera bi edo hiru minutuko etenaldia egiten uzten diet ikasleei, beren ama-hizkuntzan hitz egitera bultzatuz. Saiatzen naiz atal bakoitzaren eraketa eta interesgunea besteetatik desberdina izan dadin. Gauzak egiteko modu hau aski bestelakoa da hizkuntzen irakaskuntzan berriki egin diren beste zenbaitekiko, hauetan ikasgaia saio osoaren joanean zabalduko den gai bakar gisa azaltzen baita.

Ikasaioak ordu bete baino gehiago irauten baldin badu, berrogeita bost edo hamar minutu pasatutakoan, gelatik aterarazi egiten ditut ikasleak eta, ahal bada behintzat, beste gela edo aretoaren batean bil daitezela gero.

Tarteak uztearen
ondorioak

Ondoko grafikoa (.6) mekanografiako abildadeen ikerketa zabal batetik hartua da, baina ikasi, gaia edozein delarik ere, beti era berean ikasten da.

.6:



6. irudia: aurreberoketak ez du ondoriorik ez baita subjektuaren lehen zikloa kontuan hartzen. Iturria: A. D. Badeley eta D. J. A. Longman, The influence of length and frequency of training session on rate of learning to type.

Grafiko horretako daturik garrantzitsuena da hirurogei egunean eguneko ordu betez ikasten aritu ziren ikasleak hobeak zirela bederatzi hilabete-ren buruan berrogei egunean eguneko bi orduz aritutakoak baino (lehe-nengo taldeak 60 ordu, bigarrenak 80).

Molde hau edonon aurkitzen da ikaskuntzaren eremuan. Zenbat eta lana banatuago egon, orduan eta hobe epe luzeko oroimena.

Horren arabera, hobe dirudi egunero irakurketa, idazketa, entzunketa, gramatika eta hiztegia lantzeak, bakoitzetik apur bat, egun bakoitzean arlo batean bakarrik aritzeak baino. Bost egunean egunero bost arlo horiek lantzeak oroimenari gehiago lagunduko dio epe luzean, arlo bakoitzari egun bat emateak baino, nahiz eta emandako materiala eta denbora berdin-berdinak izan.

Ekoizpenaren ondorioak

Azken urteotako zenbait ikerketak bistaratu du ikasleek gaitasun handiagoa dutela berek ekoiztutako elementuak gogoan hartzeko. Ildo horretatik, ahal den neurrian, beti eramango ditugu ikasleak behar den hitza edo esaldia edo funtzioa esatera. Ez genieke ikasleei hizkuntz laguntzarik eman behar, berek ez dakiten neurrian ezik. Hori ez da beti erraza izaten ikasgelan. Askotan ez da eroso ikasleak hitz edo esaldiren bat atera arte zain egotea, baina ondo frogatua dago merezi duela itxoi-naldi horrek. Dirudienez, hitz edo egitura hori gogora ekartzeko ahale-gina da benetan ikasteko erarik eraginkorrena. Ikasleek gogora ekarri ezin duten hitza edo egitura irakasleak ematen duenean ere, askoz hobe-to hartuko dute gogoan lehen oroitzen saiatu badira.

Interferentzia

Azkenik, merezi du ikaskuntz prozesua moteltzen bide duen zera bat aipatzeak. Bada, ikaskuntza aroa luzea denean, beti gertatzen den feno-meno bat; interferentzia deritzo. Baliteke ikasten ari garen gaia edo informazioa edo egoera edo ahoskera ikasi berri ditugun edo berehala ikasiko ditugun beste batzuekin nahastea. (Honi aurreinterferentzia eta atzeinterferentzia esaten diogu). Egindako ikerketa askok, bereziki Esta-tu Batuetan, frogatu du hori ez gertatzeko modu bakarra dela elkarren segidan landuko diren ikasalorrak elkarrengandik ahalik eta desberdine-nak izatea. Ez da ahoskerako puntu bat gramatikako beste batekin nahasten, baina agian bai elkarren segidan ikusitako gramatikako bi puntu; eta gauza bera gertatuko da, beharbada, taldean ahoskera edo errepika-ariketak egin ondoren berehala entzumen edo mintzamen-prak-tikak egiten badira. Entzutezko oroimenean nahasmendua sortzeari ihes egin behar zaio.

Ondorioak

Artikulu honetan azaldutako ideiak hain korapilatsua den hizkuntzen irakaskuntzako arlotxo bati bakarrik dagozkie. Bere estilo propioa bilatu beharko du irakasle bakoitzak. Gogoeta eta eztabaidarako bideak eskaintzea besterik ez da funtsean artikulu honen xedea, ez irakaskun-tzarako arauak ematea.

Printzipioak

Dena den, badira printzipio batzuk aski argiak:

- Suspertasun jaso oso loturik dago epe luzean informazioak hobeto gogoratzearekin; horretarako gai eta material askoko ikasaioak egin, martxa, ekintzak eta hotsak aldatuz.
- Seguraski hobe izango da ikasgaia hiru edo lau eginkizun oso desberdinetan banatzea. Hobe da hiztegia eta gramatikako puntu batzuk egunez egun lau edo bost minutuz lantzea, egun batean hogeita hamar minutu lanketa horri ematea baino.
- Agian zenbaitetan denbora asko eramango dio ikasleari hitz, esamolde edo gramatika gogora ekartzeak eta horrek ikasaioaren martxa moteldu egingo du, baina ikasteko oso lagungarri ona da hori ikasteko.
- Irakasleak garrantzitsu irizten dion materiala ikasaioaren hasieran eta bukaeran jarri behar du. Horregatik, oso probetxugarria da saioaren azkenean puntu nagusiak laburbiltzea.

Itzultzailea: Boni Urkizu